

LABek bere elkartasun eta babes osoa adierazten dio Tubacex-eko lan heriotzen aurreko protesta ekimen batengatik bihar Gasteizen epaituko duten Ernai-ko kideari

2019an Tubacex-eko lantegietan lanean zeuden bi langile hil ziren hiru hilabete eskasetan. Lehenengoa, uztailearen 4an, Laudioko lantegian lanean zegoen I.E.A. 25 urteko langilea eta bigarrena, irailaren 18an, Amurrioko lantegian lanean zegoen M.G.R. 59 urteko langilea.

Tubacex-ek ukatu egin zuen zerikusirik izatea gertatutakoekin, baina enpresako langileen ordezkartzatik eta LABetik argi geneukan lan istripu hauek lan baldintza prekarioen ondorio zirela. Horregatik prekaritateak eragindako heriotza hauek salatzeko hainbat ekimen egin genituen, 24 orduko lanuztea, manifestazioak, kontzentrazioak, etab.

Sindikatu zein eragile sozialek egindako ekimen jendetsuekin batera Ernai Aiaraldeak bestelako ekimen batzuk ere burutu zituen, horien artean Laudioko Zumalakarregi kalea moztea, Amurrioko lantegiko sarreran kateatzea edo Laudioko lantegiko sarrera gorritz margotzea. Ekimen hauengatik identifikatuak eta jazartuak izan dira Ernai Aiaraldeko gazteak. Gazteen kontra irekitako prozedura eta isunetatik batek aurrera jarraitu du, 7.000 eurotako isun-eskaerarekin. Bihar, azaroak 30, Ernaiko kide batek aurre egin beharko dio zigor eskaera honi eta epaitua izango Gasteizen lan heriotza bat salatzeko ekimen batengatik.

Gure babes eta elkartasun osoa adieraz nahi diogu epaitua izan den Ernaiko kideari zein Ernai Aiaraldeko kide guztiei, eta bihar 10:30etan Gasteizeko epaitegien aurrean egingo den elkartaratzean parte hartzera dei egiten dugu.

Azken urteetan 5 langile hil egin dira Tubacexen lanean ari zirela. Hau ez da kasualitatea, lan baldintza prekarioen ondorio baizik. Eta are larriago dena da behin lan heriotza bat egon ostean benetako neurri efektiboak hartu ez izana. Gainera, langileen heriotzen aurrean Tubacexeko zuzendaritzak ez du inolako erantzukizunik hartu nahi izan, aldiz, langile zein gazte konprometituak kriminalizatzeko lotsarik ez dute. Kasu honetan argi diogu, Tubacex-eko zuzendaritza da epaitu beharrekoa.

Prekaritatearen aurrean antolatzea eta borrokatzea dagokigu. Oraina margotuz geroa eraiki.

Laudion, 2021eko azaroaren 29an